



LARRAULGO UDALA  
(GIPIUZKOA)



## **BANDOA**

### **ESKOLA TXIKI JAI EGUNEKO KOTXE ZIRKULAZIOA**

Kaixo, ekainaren 3an Eskola Txikien Festa dela eta Larraulgo kotxe zirkulazioa modu honetan bideratuko dugu.

Kontutan izan, Festetako ekitaldiei lotuta, **115 kotxerentzat** parkinak antolatu beharko ditugula herrian, eta **3.000 pertsona** espero direla Herri gunean.

**1.- Herritarrok gure kotxea(k) garajejan aparkatu beharko ditugu. Kalean ezin dugu kotxerik utzi.**

**2.- Egun horretan kotxea hartzeko beharra badugu, zer egin:**

Kanpoko edozeinek ezingo du herrira kotxez igo (antolakuntzak bidea itxiko du). Kanpotik datozenek Festako autobusetan igo beharko dute, eta baimen berezia duten 155 kotxeri “bakarrik” utziko zaie Larraulera igotzen.

Beraz, egun horretan Larraulgo herritarrok **kotxea hartu beharra** badugu (edo familiakoak edo etorri behar badute etxera/baserrira), **txartel berezia erakutsi beharko dugu:** “**Larraulgo herritarra**”ren txartela, buzoian utzi zaizuen. Horrekin kotxean igotzen utziko zaigu, baina ezingo dugu herrian aparkatu: gure garajejan/baserrian utzi beharko dugu kotxea.

Kotxea hartu behar izan ezkerro, **gomendatzen den ordutegia:**

- Goizean **9:00ak aurretik**
- Iluntzean **20:00etatik aurrera.**

Mila esker